

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1934

AGINDUA, 2012ko martxoaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskadiko Eskola Kontseiluko kideak kargutik kentzeko, berresteko eta izendatzeko.

Kontuan hartuta Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1998 Legearen eta 12. artikulua; eta martxoaren 7ko 55/1989 Dekretuaren –Euskadiko Eskola Kontseilua arautzen duenaren– 4., 5. eta 8. artikuluek ezartzen dutena, aipatu legea garatzeko, eta bai Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 1990eko apirilaren 4an emandako Aginduaren 15. artikulua garatzeko ere (agindu horren bidez, Euskadiko Eskola Kontseiluko funtzionamendu-araudia onartu zen). Eta STEE-EILAS-ek proposatuta, hau

EBAZTEN DUT:

Pedro Macho Aguillo jauna Euskadiko Eskola Kontseiluko kide izendatzea, unibertsitateaz kanpoko irakasleen ordezkari den Raimundo Rubio Caicedoren ordezeko modura.

AZKEN XEDAPENA

Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 30a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.